



HERRIGUNEA BEDOÑA





HERRIGUNEA - BEDOÑA

Ibilbide honek herrigunea lotzen du baserri giroko Bedoña auzoarekin, eta bira ematen dio Kurtzetxikiri. Bedoña Aretxabaletako auzoa izan zen 1966. urtera arte, eta bertan Santa Eulalia eliza dago, aditu batzuen ustez eraikia antzinako gaztelu edo dorretxe baten gainean. Bidean ikusten dira San Andres eta Bedoña inguruko zelaiak, sagastiak eta mahastiak, inguruko mendien ikuspegi ederrez gozatu bitartean.



MIDE

<p>Ibilbidearen maila teknikoa eta fisikoa neurtzeko metodoa. Zailtasun maila da 1etik 5era, txikienetik handienara.</p>	Denbora		3h
	Igoera desnibela		520 m
	Jaitsiera desnibela		520 m
	Distantzia horizontala		8,4 km
	Ibilbide mota		Zirkularra
	Ingurune naturalaren gogortasuna		1
	Orientazioa ibilbidean		2
	Zailtasuna desplazamenduan		2
	Egin beharreko esfortzua		3



MAPA



IBILBIDEAREN AZALPENAK

- **(A) Etxaluze.** Ibilbidea hasten da Etxaluzen, PR-Gi 106 Erromesbidearen panel informatiiboaren aurrean. Leku honetatik bideak jarraitzen du Etxaluze atzetik Bedoñarako errepide-raino (GI 3554). Gurutzatzen du errepidea eta jarraitzen du bidegorritik; 300 metrora hartzen du ezkererantz. Bidea pasatzen da Etxaburu baserriaren aurretik, eta gero pinudian gora egiten du Urialde baserriraino. Bidegurutzean ezkererantz eta behera, Bedoña auzuneraino.
- **(B) Bedoña auzoa.** Bidea pasatzen da Errastiko jatetxearen aurretik; hasieran hartzen du Kurtzetxikiranzko norabidea, eta gero Bidasoro baserri ondotik zuzen Artazubiaga baserriraino. Han hartzen du ezkererantz eta segitzen du aurrera Magalbe baserriaren aztarnen aurretik. Hasierako bidea bidexka bihurtuko da laster, eta gero lurrezko pista. Haritza baserriaren ondotik hormigoizko pistak eramaten du Asuela bidegurutzeraino.
- **(C) Asuela.** Hemen bideak hartzen du ezkererantz doan pista. Beherago errepide asfaltatu bihurtuko da. Beherantz jarraitzen du Kurtzetxikiranzko seinalea topatu arte. Jarraitzen du bidea eta gero zuzen doa San Josepeko harrobiraino. Hor bidea eskuinerantz doa, eta pasatzen da autobidearen gainetik, San Andres auzoraino. Segitzen du aurrera, irteera puntura.



▪ **Santa Eulalia eliza:** Estilo errenazentistako eliza honetan leihoetan elementu erromanikoak antzematen dira mendebaldeko fatxadan. Abenduaren 10ean ospatzen da Santa Eulalia eguna. Gertu daude Koldobika Jauregiren *Dragoiburu* eskultura Arrasate zaintzen eta Loramendi poeta ezagunaren oroitarria.



▪ **Landazabal atlantikoa:** ekosistema konplexu eta aberatsa, giza jarduerak sortutakoa baserri inguruan, landak eta soroak heskaiak mugatuta dituena. Garai batean Arrasaten paisaia nagusia izan zena gaur egun bihurtu da altxor preziatu, ondo gorde eta zaindu beharrekoa.



▪ **Artazubiaga:** baseritik gertu agertzen dira Artazubiaga leinuaren sortetxe zen dorretxearen aztarnak. Hango jauna Juan Bañez de Artazubiagak agindu zuen etxea erretzea, ez zuen-eta ikusi gura bere burua Don Beltran de Guevara Oñatiko kontearen menpe, hots, dominazio feudalaren menpe (XV. mendearen erdialdera). Hori dela eta, haren ondorengoek jauregi eder bat eraikiarazi zuten herrigunean, (Iturriotz kalean); armarrarian sutan agertzen da dorretxe bat, non esaldi hau irakurri daitekeen: "Pro nostri generis libertate combusta". (*Gure leinuaren askatasunagatik errea*).



▪ **San Jose eta Andramariazuriaren ermitaren aztarnak:** gaur San Josepe izenarekin ezaguna, aurreko mendeko 50. hamarkada arte leku garrantzitsua izan zen Arrasateko baserriarrentzat, egun, pareta batzuk gelditzen ez diren arren. Urtero, udaberrian, Arrasateko herritarrek San Joseren Zaindaritza eguna ospatzen zuten baselizaren inguruan dagoen *Dantzaleku* eremuan.

- PR-Gi 91 Erregebidea-Bedoña
- PR-Gi 106 Arrasate-Arantzazu. Erromesbidea
- SL-Gi 42 Kurtzetxikiko bira
- Arrasateko bira